

Ebazpena: R058/2024

Espedientea: E068/2021

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 16an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek osatzen dute. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren bidez zehaztu nahi baita nori dagokion SELAESA entitatearen 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako sozietateen gaineko zerga (aurrerantzean, SZ) egiaztatzea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 68/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.-** SELAESA sozietateak Madrilen du egoitza fiskala. Haren eragiketa-bolumena 7 milioi eurokoa baino handiagoa izan zen 2015ean eta 2016an, eta 10 milioi eurokoa baino handiagoa 2017an, 2018an eta 2019an. Eragiketa guztiak lurralde erkidean aitortu ditu 2016tik 2020ra bitarteko ekitaldietan.
- 2.-** Estatuaren titulartasuneko loteria-joko erreserbatuak kudeatzen ditu SELAESAk, eta fondo komuneko kirol- eta hipika-apustuak merkaturatzeko lizentzia bereziak ditu.

3.- 2021eko ekainaren 3an, SELAESA entitateak ZAEARI jakinarazi zion 2021eko maiatzaren 27an GFAREN jakinarazpena jaso zuela, 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako eragiketa-bolumenari loturiko SZa «egiaztatzeko jarduketan» hasiera-zitazioari buruzkoa.

4.- Hasiera-zitazioan, GFAk honako dokumentazio hau eskatu zion SELAESARI:

«-Adierazi 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldi bakoitzerako, SELAESAK loteriak eta jokoak aurrez aurreko salmenta-puntuen bidez merkaturatzean lortutako kontraprestazio guztiak, Gipuzkoako salmenta-puntuei dagozkienak bereizita.

-Adierazi 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldi bakoitzerako, SELAESAK loteriak eta jokoak online plataformaren bidez merkaturatzean lortutako kontraprestazio guztiak, egoiliar ez diren jokalariei, gipuzkoar ez diren jokalariei egoiliarrei eta Gipuzkoako egoiliar diren jokalariei dagozkienak bereizita».

5.- 2021eko ekainaren 10ean, SELAESAK idazki bat igorri zion GFARI. Bertan zioen GFAk ez zuela eskumenik eskatutako informazioa eskatzeko.

6.- 2021eko ekainaren 14an, GFAk SELAESA entitateari egindako errekerimendua berretsi, eta eskumena zuela adierazi zuen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 19.Bost artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- 2021eko ekainaren 21ean, SELAESAK eskatutako informazioa eman zion GFARI.

8.- 2021eko uztailaren 7an, GFAk «Administrazio ez eskudun erkide/foralean diru-sarrera egiteari buruzko txostena» bidali zion ZAEARI (2021eko uztailaren 5eko data zuen). Txosten horretan eskatzen zuen ZAEAK egiazta zezala SELAESAK 2016tik 2019ra bitarteko zergaldietan SZan aitortutako eragiketa-bolumena, eta erregularizatu egin zen, zegozkion akta bakarrak formalizatuta.

9.- 2021eko abuztuaren 2an, ZAEAK inhibizio-errekerimendua jakinarazi zion GFARI, SELAESAREN eragiketa-bolumena egiaztatzeke jarduketak bertan behera utz zitzaizkion.

10.- 2021eko abuztuaren 24an, GFAk jakinarazi zuen ez zuela onartu ZAEAK egindako inhibizio-errekerimendua.

11.- 2021eko irailaren 21ean, ZAEAK eskumen-gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta eskatu zuen deklaratzeko GFAk ez duela eskumenik SELAESA entitateak 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietan SZan aitortutako eragiketa-bolumena egiaztatzeke jarduketak egiteko.

Gatazka (espediente-zenbakia: 68/2021) prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da GFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua funtzio hauek esleitzen dizkio Arbitraje Batzordeari:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak ebatz dezake GFAk SELAESaren 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako SZaren ondorioetarako eragiketa-bolumenari dagokionez egindako jarduketek gainditzen ote dituzten ikuskatzeko eskumena ez duen administrazioaren ahalmenak.

2.- Aplikatu beharreko arauak.

Ekonomia Itunaren 19. artikulua hau xedatzen du:

«19. artikulua. Zergaren ikuskapena.

Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu egoitza fiskala, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean eginak badira, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztien % 75 edo Euskadin egin badira.

Bi. Ikuskapen-jarduketetan, administrazio eskudunaren araudia bete beharko da, aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera, gainerako administrazioen elkarlana eragotzi gabe.

Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hiru. Aurreko apartatuan xedatutakoa ulertu behar da foru-aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak

eragotzi gabe. Baina foru-aldundien jarduketa horiek ez dute inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan, administrazio-organo eskudunen jarduketen ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta.

Lau. Egiaztapenetan administrazio eskudunak ezartzen dituzten proportzioek ondorioak izango dituzte subjektu pasiboarekiko, likidatutako betebeharrei dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

Bost. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu ahalko dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-zenbatekoaren kalkuluari eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari».

19. artikulua Bost. apartatua Ekonomia Ituna aldatzen duen abenduaren 28ko 10/2017 Legearen artikulua bakarraren bidez txertatu zen (2017ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean).

3.- ZAEAREN JARRERA.

3.1.- ZAEak azaldu duenaren arabera, SELAESA entitateak egoitza fiskala lurralde erkidean duenez, aipatu ekitaldietan 7 eta 10 milioi baino gehiagoko eragiketa-bolumena izan zuenez, eta ZAEAn soilik tributatu zuenez, zalantzarik gabe, ikuskatzeko eskumena ZAEak du, eta, beraz, GFAk ez du eskumenik entitatearen 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako SZa egiaztatzeko.

Halaber, ZAEAk azpimarratzen du administrazio bakoitzari eragiketa-bolumenaren proportzioak egiaztatzeko dagokion eskumena ikuskatzeko eskumenarekin lotuta dagoela, eta, orduan, ikuskatzeko eskumena duen administrazioak bakarrik egiaztatu eta zehaztu ditzakeela, ukitutako administrazio guztientzako ondorioekin, eragiketa-bolumena eta administrazio bakoitzari egotz dakizkiokeen proportzioak.

Aurrekoa oinarri hartuta, ZAEAk irizten dio GFAk gainditu egin dituela Ekonomia Itunaren 19.Bost artikuluan jasotako ahalmenaren mugak; izan ere, entitateak Espainiako lurralde osoan egindako eragiketa guztiei buruzko informazioa eskatu zion SELAESARI, eta bereiz zitzala Gipuzkoako salmenta-puntuetan lortutako kontraprestazioak, bai eta egoiliar ez diren jokalariek, gipuzkoar ez diren jokolari egoiliarrek eta Gipuzkoako egoiliar diren jokalariek online plataformetan egindako eragiketak ere.

Bestalde, ZAEAk azaldu du GFAk SELAESA entitateari buruz egindako txostenean baieztatzen zela aktuarioek jarduketak egin zituztela haren Gipuzkoako merkataritza-ordezkaritzarekin, besteak beste, funtzioak, jarduera, ordainsariak eta salmenta-puntuen kudeaketa-kontratuak zehatz-mehatz ezagutzeko. Hala ere, ZAEARI iruditzen zaio SELAESAK Espainiako lurralde osoan egiten duen jardueraren azterketa zehatz eta xehatua egin zuela GFAk egiaz, eta, horretan oinarrituta, aktuarioek lurraldeko kokatu zituztela eragiketak, eta haien ustez 2016, 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietan GFARI eta gainerako administrazioei egokitu beharko litzaizkiekeen eragiketa-bolumenaren proportzioak zehaztu zituztela.

Azken batean, ZAEAREN ustez, alegazio-idazkian dioen bezala, GFAk eskatutako dokumentazioak sobera gainditu zuen datuak hartze hutsa egiteko behar zen informazioa, ikuskatzeko eskumena duen administrazioari eskatu nahi baitzion

eragiketa-bolumena eta horien proportzioak egiaztatzeko, eta horrek, azken finean, Ekonomia Itunaren 19. artikularen arabera ez dituen ikuskapen-eskumenak erabiltzea dakar.

ZAEAk adierazten du GFAk «Zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» izeneko dokumentuan ezarritako prozedurari jarraitu behar ziola —ondorio horiek 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan onetsi ziren—. Prozedura horren arabera, ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak datu-bilketa hutsa egin ondoren, eragiketa-bolumena egiaztatzeko eska diezaioke administrazio eskudunari.

3.2.- Bestalde, ZAEAk dio GFAk gauzatutako egiaztapen-jarduketak Gipuzkoako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 144.3 artikuluan kokatzen direla; alegia, egiaztapen- eta ikerketa-prozedura bat hastea bidezkoa den ala ez zehaztea ahalbidetzen duten aurretiazko jarduketak lirateke.

Hau da, GFAk ikuskapen-prozedura eta -jarduketen barruan sartzen diren eta nahitaez ikuskapen-organoek garatu behar dituzten jarduketa batzuk eginarazi zizkion SELAESARI, eta horrek esan nahi du datu-hartze mugatu hutsa baino gehiago egin zela.

4.- SELAESAREN JARRERA.

Bestalde, SELAESAk adierazi du ez duela lotunerik Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta, beraz, ez zela bidezkoa eskatutako datuak bidaltzea, uste baitu GFAk ez zuela eskumenik horiek eskatzeko, Ekonomia Itunaren 19. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Eta hala azaldu zion GFARI 2021eko ekainaren 10ean emandako erantzunean.

Hala eta guztiz, GFaren ikuskaritza tematu zenez, eta gerora zehapen-prozedurarik ireki ez ziezaion, SELAESAk eskatutako datuak (bost ekitaldietako eragiketa-bolumena, guztira) ezarritako epean ematea erabaki zuen, baina Gipuzkoako Lurralde Historikoan inolako lotunerik ez zuela berretsita.

5.- GFaren jarrera.

5.1.- GFAk alegatu duenez, SELAESari dagokionez, informazioa biltzera mugatu da. Eragiketa-bolumenaren kalkuluan eragina izan dezaketen eragiketa guztiak egiaztatzeko behar diren datuak lortu ditu, eragiketon kokagunetzat hartzen dena edozein dela ere, eta egindakoa ikuskaritza-eskumena duen zerga-administrazioari jakinarazteko asmoarekin soilik, zergadunari ondorio ekonomikorik eragin gabe.

GFAk dio SELAESA entitatearen informazioa dokumentu publikoetatik, SELAESAREN beraren memoria publikotik eta Merkataritza Erregistrotik edo Internetetik bildu duela.

Era berean, GFAk jarduketak egin zituen SELAESA entitatearen Gipuzkoako ordezkartzarekin lotuta —Gipuzkoako lurraldean dago—, Ekonomia Itunaren 19. artikulua babesean.

Laburbilduz, GFAk dio, bere jarreraren oinarri gisa, SSA entitatetik beharrezkoa den informazioa biltzera mugatu dela, ZAEARI 2016 eta 2019 bitarteko ekitaldietako eragiketa-bolumena egiaztatzeko egindako eskaera funtsatzeko.

Testuinguru horretan, GFAk bi inguruabar nabarmentzen ditu:

1) GFAk, hirugarrenengandik lortutako dokumentazioan oinarrituta, hainbat zantzu hauteman ditu, eta, horien arabera, probabilitate handiarekin, eragiketak Gipuzkoan kokatuta leudeke.

2) ZAEAk, GFAk emandako informazioen arabera, ezin du ikuskatzeko eskumena dagokiola ondorioztatu, harik eta eragiketa-bolumenari eta dagozkion administrazioei egotz dakizkiekeen proportzioei buruzko zerga-egiaztapen eztabaidea ezina egiten duen arte.

5.2.- Aurrekoaz gain, adierazi behar da GFAk SELAESA entitatearekiko egindako jarduketak egiaztapen-jarduketak izan zirela, eta, Gipuzkoako Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 144.3 artikulua babesean, «ez dira hartuko administrazio errekerimendutzat, foru arau honek 27. artikulua 1 apartatuan jasotako ondorioetarako». Horrek, beste behin ere, esan nahi du ez direla ikuskapen-prozeduratzat hartzen.

Era berean, GFAREN ustez, garrantzitsua da nabarmentzea jarduketak ahalik eta iraupenik laburrena izan zutela, zehazki, 2021eko maiatzaren 27tik urte bereko uztailaren 7ra arte; orduantxe eskatu zitzaion ZAEARI SELAESA entitatea egiaztatzeko.

5.3.- ZAEAREN alegazioaren aurka dago GFA. Alegazio horren arabera, «Zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» izeneko dokumentuan ezarritako prozedurari jarraitu behar zitzaion. GFAk azaltzen duenez, Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaiaren arabera (256/2012 erreka.), dokumentu horrek ez du alderdiak derrigortzeko indar loteslerik.

GFAk alegatzen du Ekonomia Itunaren 19.Bost artikuluko xedapenak bete direla; eta ez dira nabarmen urruntzen «Zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» dokumentuan jasotakotik.

6.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

6.1.- Ikuskatzeko eskumenari dagokionez.

GFAk dioenez, ZAEAk ezin du ikuskatzeko eskumena dagokiola ondorioztatu, harik eta eragiketa-bolumenari eta dagozkion administrazioei egotz dakizkiekeen proportzioei buruzko zerga-egiaztapen eztabaiaezina egiten duen arte.

Dena den, SELAESA entitateak lurralde erkidean du egoitza fiskala, haren eragiketa-bolumena 7 milioi eurokoa baino handiagoa izan zen 2015ean eta 2016an, eta 10 milioi eurokoa baino handiagoa 2017an, 2018an eta 2019an, eta ZAEARI soilik ordaindu zizkion zergak. Hori dela eta, GFAk jakin behar du eskumen hori legez ezarritako prozedura-bidetik aldatzea sustatzen eta hura aldatzen ez den bitartean, ikuskapen-eskumena ZAEAk duela. Aurreko horretatik ondorioztatzen da, halaber, GFAk ez duela ikuskatzeko eskumenik entitatearen SZa egiaztatzeko 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietan.

Era berean, ikuskatzeko eskumena duen administrazioak bakarrik egiaztatu eta zehaztu ditzake, ukitutako administrazio guztientzako ondorioekin, eragiketa-bolumena eta administrazio bakoitzari esleitutako proportzioa.

6.2.- Bestalde, Arbitraje Batzordeak dagoeneko zehaztu du bere iritzia ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak eragiketa-bolumena eta eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatzeko egindako jarduketan irismenari buruz ebazpen hauetan: 17/2013 (21/2010 gatazkari buruzkoa), 19/2022

(15/2016 gatazkari buruzkoa) eta 81/2023 (20/2018 gatazkari buruzkoa), ondorio guztietarako errepikatutzat ematen ditugunak.

Orobat, argigarria da Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia, epai hauen bidez adierazia: 2015eko maiatzaren 11ko epaia (ECLI:ES:TS:2015:2092), 17/2013 Ebazpena berresten duena, eta 2016ko maiatzaren 3koa (ECLI:ES:TS:2016:1959).

Arbitraje Batzordeak 17/2013 Ebazpenean adierazi zuen ikuskatzeko eskumenik ez zuen administrazioak jarduketak egin zitzakeela bere lurraldean, baina ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu.

2092/2015 Epaia irizpide hori berresten du; izan ere, horren arabera, aitortutako eragiketen «bolumen osoaren» egiaztapena ikuskatzeko eskumena duen administrazioak bakarrik egin dezake, administrazio bakoitzaren tributazio-proportzioa zehazte aldera. Are gehiago, zehazten du aldundiak datuak hartu nahi bazituen (2006ko maiatzaren 18ko administrazioen arteko akordioetan xedatutakoaren arabera) ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu; gehienez ere aldundiaren lurraldean egindako eragiketen xehetasuna eska zezakeen.

Illo beretik, 1959/2016 Epaia dio aldundiak, ordainarazpen-eskumena duenean, bere lurraldean jarduketak egin ditzakeen arren, ezin duela errekerimendurik egin bere lurraldean nahiz lurraldetik kanpo egindako eragiketa guztiak eskuratzeko, ez dituen ikuskapen-eskumenak erabiltzen dituelako.

6.3.- Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 144.3 artikulua jasotzen ditu ziurtapen eta konstatazorako jarduketak, eta, GFAREN iritziz, horiek «ez dira hartuko administrazio-errekerimendutzat, foru arau honek 27. artikuluan

1. apartatuan jasotako ondorioetarako», eta, gainera, Ekonomia Itunaren 19.Bost artikulua babesean egin ziren. Horrenbestez, aipatu jarduketak ezin daitezke hartu egiaztapen- eta ikerketa-jarduketatzat.

Jakina, Ekonomia Itunak egituratzen duen eskumen-mugaketa ezin daiteke aldatu administrazio batek egiaztapen- eta ikerketa-ahalmenen inguruan iritzi bat edo bestea duen arabera.

Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 144.3 artikuluan araututako ziurtapen eta konstataziorako jarduketak azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduaren 36. artikuluan garatzen dira, eta egiaztapen- eta ikerketa-prozedura bat hastea bidezkoa den zehaztu ahal izateko aurretiazko jarduketak dira.

Hau da, jarduketa horiek ikuskapen-prozeduren eta -jarduketen barruan sartzen dira, eta ikuskapen-organoek garatu behar dituzte nahitaez. Espedientean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Ikuskaritzak 2021eko maiatzaren 27an egindako ziurtapen eta konstataziorako jarduketak hasteko zitazioa agertzen da, bai eta 2021eko ekainaren 14ko jakinarazpena ere. Jakinarazpen horretan, GFaren Ikuskaritzak, Ekonomia Itunaren 19.Bost artikulua babesean, eskatutako dokumentazioaren errekerimendua berretsi zuen.

Horrela, GFAk, ikuskatzeko eskumenik izan gabe, formalki ikuskapen-jarduketak ez diren baina materialki horien antza duten jarduketak egin ditu.

6.4.- Ekonomia Itunaren 19. artikulua ikuskapen-eskumen bakarraren printzipioan oinarritzen da —eskumen hori administrazio bakar bati esleitzen zaio—, eta administrazio eskudunak egindako jarduketen ondorioak gainerako administrazioetara hedatzeko arauak ezartzen ditu.

Hala ere, Ekonomia Itunaren 19.Bost artikulua ezartzen duen legez, ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak (kasu honetan, GFAk) egiaztatu ahalko ditu eragiketa-bolumenaren kalkuluan eragina izan dezaketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari (ZAEA) jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari (SELAESA).

Horrela, ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak zergaduna tributazio-ehunekoak oker deklaritzen ari delako ebidentziaren bat duenean, zantzu horiek egiaztatzeko edo ezeztatzeko frogak lortu ahal izango ditu. Dena den, inola ere ezingo du eskatu egindako eragiketa guztiei buruzko informazioa, eta, ezingo da informazio horretan oinarritu ikuskapen-eskumena duen administrazioari eragiketa-bolumenari buruzko egiaztapen-txosten bat eskatzeko, aitortutako ehunekoak zalantzan jarrita.

Aurreko horretatik ezinbestean ondorioztatzen da 19. artikulua Bost apartatuaren babesean egindako jarduketak halabeharrez mugatuta daudela, bestela, ikuskapen-eskumena baliatu ahal izango litzateke eskumenik izan gabe.

Aurrekoa oinarri hartuta, GFAk egindako jarduketek manu horretan ezarritako eremua gainditzen dute, SELAESAk egindako eragiketa guztietara zabaldu baitira, presentzialetara nahiz onlinekoetara, Gipuzkoako lurraldean zein kanpo egindakoetara.

Hau da, bere eskumenaren mugak ez gainditzeko, eta SELAESAk eragiketen % 100 ZAEAREN aurrean aitortzen dituenek, nahikoa zatekeen GFAk informazioa eskatzea edo frogaren bat lortzea Gipuzkoako lurraldearekin nolabaiteko lotura zuten (edo, behintzat, lurralde erkidearekin loturarik ez zuten) eragiketei buruz,

aitortutako ehunekoak zalantzan jarri, eta eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskatzeko ZAEARI.

Hala eta guztiz ere, GFAk eragiketa presentzial edo birtual guztiei buruzko informazioa eskatu zuen, eta datu horiek ZAEARI bidalitako txostenean erabili ziren. Hala, txosten horretan, GFAk, nahiz eta ikuskatzeko eskumenik ez izan, Ekonomia Itunaren ondorioetarako eragiketak kokatzeko baliatu beharreko irizpidea aztertu ondoren, eta SELAESAK aitortutakoaz bestelako kokapen-irizpide bat aplikatuta, alde bakarrez kalkulatu zituen Gipuzkoari egotz dakizkiokeen eragiketa-bolumenaren ehunekoak, bai eta 2016, 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietan GFAn ordaindu gabeko kuotak ere. Azkenik, aurrekoa oinarri hartuta, GFAk ZAEARI eskatu zion egiazta zitzala aitortutako eragiketa-bolumenaren tributazio-ehunekoak, eta zegozkien akta bakarrak formalizatuz erregularizatu zitzala.

6.4.- Hori bat dator ZAEAK eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiek 2006ko maiatzaren 18an sinatutako adiskidetasunezko akordioekin. Izan ere, akordio horien arabera, zerga-kontrolari eta akta bakarrei dagokienez, ikuskatzeko eskumena duen administrazioak egingo du erregularizazioa, akta bakarraren bidez, baina gainerakoek egiaztapen hori premiatu dezakete. Horretarako, zergadunarengandik behar diren datuak lortu eta txosten bat bidaliko dute.

Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaiak adierazitakoaren arabera (256/2012 errek.), ZAEAK, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatutako lantaldeak prestatutako «Egoitza-aldaketei buruzko lantaldearen ondorioak» prozedurak ez du indar arauemailerik (ez ditu betetzen erregelamendu-xedapen batek bete beharreko gutxieneko baldintzak), baina ondorioak ditu barne mailak. Hala, tartean diren administrazioek barne harremanetarako eginbide jakin bat adosten dute, euren arteko ezbaiak modu adiskidetsuan konpontzeko. Ondorio

bera atara liteke «Zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» dokumentuan ezarritako prozedurari buruz.

6.5.- Bestalde, ez da garrantzitsutzat jotzen GFAk egindako jarduketaren iraupena, jarduketaren izaera baizik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea GFAk SELAESaren 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietako sozietateen gaineko zerga dela-eta egindako egiaztapen-jarduketek gainditu egiten dutela Ekonomia Itunak ikuskatzeko eskumenik gabeko administrazioari esleitzen dion eskumen-eremua.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta SELAESari jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.